4. Kultura eta kirol ekitaldietarako edo antzeko beste ekitaldi batzuetarako bide mota hauek erabiltzeagatik trafikoak izan ditzakeen ondorio larriak diela eta, baimena ekitaldiaren entitate antolatzaileak eskatu beharko du ekitaldia baino hilabete lehenago. Ekitaldi horien artean ez dira sartzen Konstituzioak aitortzen dituen bilera eta adierazpen eskubideak, horiek beren arauak dituztelako.

5. Aurreko puntuan aipatzen den baimenak ibilbide alternatibo bat baimendu dezake, eskatu den ibilbidea ez den beste bat, zenbait zirkunstantzia dela-eta proposatu den ibilbidea komeni ez dela ikusten bada.

Nolanahi ere, Udaltzaingoak dagozkion trafiko planak prestatuko ditu, zirkulazioa moztu edo desbideratzen denean, eta bide alternatiboak seinaleztatuko ditu, erabiltzaileei ahalik eta kalterik txikiena eragite aldera.

6. Lehentasuneko bideak 1. Planoan (erantsita) daude.

Udalak, alkatearen ebazpen bidez, aldatu edo gehitu ditzake Ordenantza honek xedatzen dituen lehentasuneko bideak.

IV. KAPITULUA. HERRIGUNE HISTORIKOKO ZIRKULAZIORI BURUZKO ARAU BEREZIAK

22. artikulua

Kapitulu honetan xedatutako arauak gobernatuko dituzte ibilgailuen zirkulazioa eta aparkatzeak Herrigune Historikoko kaleetan.

23. artikulua

Aplikazio eremua, hasiera batean, bide publiko hauek osatuko dute: Kale Nagusia, Iturri Kalea, Errementari Kalea eta Kale Berriako 1, 2 eta 5 zenbakiak.

Dena den, Ordenantza honetako kapitulu hau osoz edo zatiz aplikatu ahal izango da, baita ere, etorkizunean oinezkoentzat ipini litezkeen espazioetan.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aplikazio eremua 2. Planoan dago (erantsita).

24. artikulua

Kale Nagusia, Iturri Kalea, Errementari kalea eta Kale Berriko 1, 2 eta 5 zenbakiak udalerriko oinezkoen gune dira, Ordenantza honen arabera, eta hala jarraituko dute izaten.

Oinezkoen gune izateak esan nahi du oinezkoek izango dutela lehentasuna definitutako eremu osoan eta debekatua egongo dela ibilgailuak ibiltzea, eta baita aparkatzea eta geratzea ere. Ibilgailuek berariazko baimena beharko dute gune horretan ibiltzeko, aparkatzeko eta geratzeko, eta hori ondorengo artikuluetan arautzen da.

25. artikulua

Ibilgailu baimenduek zirkulazio arau berezi hauek bete beharko dituzte:

- * Ibilgailuen gehieneko abiadura 20 km/h-koa izango da.
- * Gidariak oinezkoen lehentasuna eman behar diete; abiadura haien abiadurara murriztuko dute eta, behar izanez gero, gelditu egingo dira.
- * Ibilgailuek ezingo dute aparkatu, nola eta pertsonak utzi edo hartzeko edo merkantziak kargatu edo deskargatzeko ez bada.

26. artikulua

Ondorengo ibilgailu hauek dute baimena Herrigune Historikoak hartzen duen gunetik zirkulatzeko:

- * Guneko egoiliarren ibilgailuek.
- * Guneko dendetako ibilgailuek.
- * Suhiltzaile eta salbamendu zerbitzuko ibilgailuek, polizien ibilgailuek, ambulanziek eta, oro har, zerbitzu publikoak emateko baimena dutenek, eta baita pertsonal sanitarioen ibilgailu partikularrek ere, bere lanbideko zereginetarako bada.
- * Guneko dendek eta egoiliarren hornitzaileen ibilgailuek, baimendutako leku eta orduetan.
- * Zenbait ekitaldi direla eta, baimena duten ibilgailuek.

Debekatua dago motor-bizikletaz zirkulatzea Gune osoan, nola eta Guneko egoiliarren eta banatzaileen motor-bizikletak ez diren. Guneko egoiliarrek zirkulatu ahal izango dute, ibilgailua gordetzeko lekua Herrigune Historikoan izan eta bertara eramateko edo bertatik ateratzeko bada bakarrik eta banatzaileek, berriz, beren lanetarako bada bakarrik.

Txirrinduek, patinek eta gurpil-oholek oinezkoen gunetik zirkulatu ahal izango dute, oinezkoen kopuruak ahalbidetzen badu eta haien lehentasuna errespetatu baldin badaiteke. Abiadura egokiaz zirkulatuko dute une oro, arrisku egoerarik ez sortzeko; inoiz ez dute gaindituko 20 km/h-ko abiadura.

Udal Agintaritzak zirkulatzea edo aparkatzea mugatu diezaieke ibilgailuei, baldin eta duten pisuagatik edo tamainagatik oinezkoen espazioen kontserbaziorako edo erabilerarako kalte nabarmenak eragin ditzaketela baderitzo.

27. artikulua

Oro har, debekatua dago ibilgailua aparkatzea edo geratzea 2. Planoan (erantsita) definituta agertzen den eremu osoan, salbuespen hauekin:

- * Aipatutako kaleetako egoiliarrek eta merkatariak baimena izango dute ibilgailua aparkatzeko edo geratzeko, betiere pertsonak utzi edo hartzeko edo merkantziak kargatu edo deskargatzeko bada, inolako ordutegi mugarik gabe.
- * Merkatariak eta egoiliarrak merkantziez hornitzen dituzten hornitzaileek baimena izango dute ibilgailua geratzeko eta aparkatzeko, zamalanetarako, leku eta ordu baimenduetan.
- * Zerbitzu publikoko ibilgailuek baimenduta dute geratzea eta aparkatzea inolako mugarik gabe eta behar duten denboran, eman behar duten zerbitzu publikoa emateko.
- * Baimenduta egongo da ibilgailuak geratzea eta aparkatzea hileta, ezkontza eta gainerako ekitaldi baimenduetan, betiere kasu edo ekitaldi mota bakoitzean ibilgailuak geratzeko edo aparkatzeko definitzen diren guneeetan. Oro har, ibilgailu baimenduek ekitaldia hasteko hogeita hamar minuturen faltan hasi ahal izango dira sartzen guneeetara; irteteko, berriz, hogeita hamar minutu izango dituzte gehienez, ekitaldia egiten denetik.

Dena dela, ibilgailuak ezingo dira geratu edo aparkatu 30 minutu baino denbora gehiagoan.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Debekatua dago motor-bizikleta geratzea eta aparkatzea. Dena den, Gunean bizi diren egoiliarrek geratu eta aparkatu ahal izango dute, ibilgailua gordetzeko lekua Herrigune Historikoan izan eta bertara eramateko edo bertatik ateratzeko bada bakarrik eta banatzaileek, berriz, beren lanetarako bada bakarrik.

28. artikulua

Ordenantza honi erantsita doan 2. Planoan definitutako eremua irekita egongo da astelehenetik ostiralera 07:30etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era eta, larunbatetan, 07:30etik 13:30era. Kaleak merkatuan dauden sistema mekanikoen eta/edo elektronikoen bidez ireki eta itxiko dira. Ordu-tegi horietatik kanpo, dagokion aparatu elektronikoa beharko da kaleetara sartzeko. Debekatua dago ibilgailuak aparkatzea eremu osoan.

29. artikulua

Ordenantza honi erantsita doan 2. Planoan definitutako eremua irekita egongo den orduetatik kanpo, ibilgailuek aparatu elektronikoa irakurtzeko irakurgailua eduki beharko dute, kaleetara sartzeko. Aparatu elektronikoak era honetara banatuko dira:

- A) ORDENANTZA HONI ERANTSITA DOAN 2. PLANOAN DEFINITUTAKO EREMUKO GARAJEEN JABEAK ETA MAIZTERRAK, KALE HAUETAKO EGOILIARRAK EZ DIRENAK. Aparatu bat izango dute gaur egun duten ibilgailu bakoitzerako Ordenantza honi erantsita doan 2. Planoan definitutako eremuko garajeen jabe eta maizter izanik kale hauetako egoiliar ez direnek.
- B) ORDENANTZA HONI ERANTSITA DOAN 2. PLANOAN DEFINITUTAKO EREMUKO IBILGAILU JABEAK, KALE HAUETAKO EGOILIARRAK DIRENAK. Aparatu bat izango dute gaur egun duten ibilgailu bakoitzerako, ibilgailua Asteasu udalerriko ibilgailuen erroldan inskribatuta badago betiere.
- C) ORDENANTZA HONI ERANTSITA DOAN 2. PLANOAN DEFINITUTAKO EREMUKO ETXEBIZITZAK. Aparatu bat banatuko da etxebizitza bakoitzerako Ordenantza honi erantsita doan 2. Planoan definitutako eremuko egoiliar izanik ibilgailuen jabe ez direnen artean.

Aparatuak banatzerakoan, kontratu bana entregatuko da, txartela hartzen duen eta Asteasuko Udalaren arteko kontratua alegia.

Ordenantza honi erantsita doan 2. Planoan definitutako eremuko establezimenduen, jardueren, garajeen eta/edo lokalen jabeek gailu bat kaleetara ordutegiz kanpo sartzeko.

Era berean, Kale Nagusian dagoen Osasun Zentroak gailu bat izango du kaleetara ordutegiz kanpo sartzeko.

Datu pertsonalen babesa:

Kontuan izanik datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eskatzen duena eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen babesari eta pertsona fisikoen datuen zirkulazio libreari buruzkoa, artikulua honetan aipatutako txartelaren eskuratzaileri izateko eskubidea aitortzeko behar diren datu pertsonal guztiak Asteasuko Udalak jaso eta tratatuko ditu, helburu horretarako.

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren bidez aldatu egin ziren Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 28. artikuluko 2 eta 3. atalak eta, hala, besteak beste, interesdunek eskubidea dute aurkeztu beharreko dokumentuak ez aurkezteko, baldin eta haiek dagoeneko administrazio jardulearen esku badaude edo dokumentuak beste edozein administraziok prestatu eta administrazio jarduleak haiek kontsultatu edo eskuratu baldin baditzake, nola eta interesdunak kontsulta edo eskuratzeko horren kontra agertzen ez diren.

Datu aproposak, egokiak eta tratamenduaren xedeetarako baino behar ez diren datuak bakarrik eskatuko dira (DBEO, 5.1 c) art.).

Datuen babeserako Europako Erregelamenduko 6. artikulua datuen tratamenduak — datuak trukatzeko tratatzea da— zilegia izateko bete behar dituen baldintzak xedatzen ditu. Erregelamendu bereko 21. artikulua, era berean, interesdunen aurka egiteko eskubidea arautzen du.

Informazio jakin bat kontsultatzea beharrezkoa bada obligazio legal bat betetzeko (DBEO, 6.1 c) art.), formularioetan zirkunstantzia horren berri eman beharko zaio eskatzaileari eta argi eta garbi azaldu beharko zaizkio kontsultatuko den informazio zehatza eta kontsulta egitea ahalbidetzen duen legea, hain zuzen ere baimenaren beharrik gabe eta aurka egiteko aukerarik gabe kontsulta egitea ahalbidetzen duena.

Informazio jakin bat kontsultatzea beharrezkoa bada interes publikoko eginkizun bat betetzeko (DBEO, 6.1 e) art.), formularioetan eskatzaileari kontsultaren berri eman beharko zaio eta, era berean, azaldu beharko zaio kontsultaren aurka egin dezakeela, eta baita horretarako jarraitu behar duen prozedura ere.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean (3. art.), elkarreragingarritasun printzipioa agertzen da administrazio publikoen arteko jarduketarako printzipioen artean. Hala, administrazioek bitarteko elektronikoen bidez jardungo dute elkarren artean, betiere bermatuz administrazio bakoitzak erabiltzen dituen sistemen eta soluzioen elkarreragingarritasuna eta segurtasuna eta datu pertsonalen babesa; gainera, interesdunei zerbitzuak batera ematea lehenetsiko dute.

Asteasuko Udalak, elkarreragingarritasun nodoaren bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden pertsona interesdunen datuen inguruan, eta baita Asteasuko Udalaren tramitazio administratiborako eskatzen den beste edozein kontsulta ere. Horregatik, ez dituzte eskatuko elkarreragingarritasunaren bidez kontsulta daitezkeen datuak, betiere pertsona interesduna haiek erabiltzearen aurka azaltzen ez den, aurka agertzen bada, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

30. artikulua

Trafiko baimendua behar bezala kontrolatzeko eta arautzeko, Udala elementu mugikorrez edo pibotez baliatuko da eremu osoko sarbideak eta zirkulazioa kontrolatzeko, baita merkatuan dauden bitarteko mekanikoez eta/edo elektronikoez ere, betiere Ordenantza honek xedatutakoa betetzeko eta oinezkoentzako erailera lehentasuna bermatzeko balio badute.

31. artikulua

Udalak behar bezala seinaleztatuko ditu oinezkoentzako eremuak, zamalanetarako guneak, ordutegi baimenduak, egonez gero, eta zirkulazio debekuak.

32. artikulua

Ibilgailuak Ordenantza honi erantsita doan 2. Planoan definitutako eremuan aparkatzea arau haustea izango da, zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorreko 94.2 b) artikulua araberak eta Ordenantza honetako 27. artikulua ere kontuan hartuz.

Udal langileek kontrolatuko dute ez duela inork aparkatzen Ordenantza honi erantsita doan 2. Planoan definitutako eremuan egunean zehar; horretarako, behar diren bitartekoak erabiliko dituzte.

V. TITULUA

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETATIK KENTZEA ETA GORDETZEA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

33. artikulua

1. Udaltzaingoak ibilgailua bide publikotik kendu eta ibilgailuen gordelekura eraman ahal izango du, baldin eta hori egin beharko lukeenak egiten ez badu eta, betiere,

- a) ibilgailuak ibilgailuen edo oinezkoen zirkulaziorako arriskua sortzen badu, enbarazu egiten badu edo zerbitzu edo ondare publikoren bat hondatu badu,
- b) ibilgailuari istripua izan eta martxan segitzea ezinezkoa bazaio,
- c) ibilgailua legez ibilgetzen hasi eta ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe ibilgetzeko leku egokirik ez badago,
- d) ibilgailua 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 104. artikuluaaren arabera ibilgetu eta, hala ere, ibilgetzeko egon diren arrazoiak desagertu ez badira,
- e) Ibilgailu bat udal-agintaritzak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku gisa gaitutako lekuetan aparkatuta dagoenean, Desgaitasuna duten Pertsonentzako Aparkalekuen Europako Txartela eduki gabe edo hori baimentzen duen bereizgarria jarri gabe.
- f) ibilgailua aparkatuta badago zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako edo zamalanetarako bakarrik diren bide erreietan edo zatietan,
- g) ibilgailua udal agintarietako denbora mugatuko aparkalekutarako lekuetan aparkatuta badago horretarako baimena ematen duen ezaugarririk gabe edo, ezaugarria jarrita eduki arren, udal ordenantzak ezarritako gehieneko denbora hiru aldiz gaindituta badago, edo
- h) ibilgailuak zirkulazioa oztopatu edo zailtzen badu edo zirkulaziorako arriskua sortzen badu.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2. Administrazioak ibilgailuaren titularrari jakinarazi beharko dio ibilgailua kendu eta ibilgailuen gordelekura eramana izan dela; horretarako, hogeita lau ordu izango ditu. Jakinarazpena Zirkulazio Helbide Elektroniko bidez egingo dio, titularrak halako helbidea baldin badauka betiere.

34. artikulua

Ibilgailu bat kentzea justifikatuta egongo da, baldin eta ibilgailua Ordenantza honetako 33. artikulua xedatutako zirkunstantziaren batean badago, eta hori gerta daiteke, besteak beste,

1. gelditzea debekatua duen gunean aparkatuta dagoenean,
2. bigarren ilaran aparkatuta eta gidaririk gabe dagoenean, Ordenantza honetako 18.4 artikulua xedatutakoa hautsiz,
3. alaka baten erpinetik edo katoi bateko angeluaren ertzetik irten eta beste gidariei maniobra arriskutsuak egitera behartzen dietenean,
4. oinezkoentzako pasagune seinaleztatu batean, oinezkoak pasatzeko egoten diren etxe-uhartearen kantoian edo espaloietako desgaituentzako beheraguneetan aparkatuta dagoenean,
5. ibi bat osoz edo zatiz okupatzen duenean, hura erabiltzeko ordu baimenduetan,
6. zamaletarako gune batean geldituta eta/edo aparkatuta dagoenean, hura erabiltzeko ordu baimenduetan eta bidaiariak/merkantziak kargatzen/deskargatzen ari ez denean,
7. garraio publikoko geraleku seinaleztatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean,
8. larrialdi edo segurtasun zerbitzuetarako berariaz gordetako lekuetan aparkatuta dagoenean,
9. ikuskizun publikoetarako lokalen larrialdi irteeren aurrealdean aparkatuta dagoenean, ikuskizuna ari den unean,
10. Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkalekuetan aparkatuta dagoenean, Desgaitasuna duten Pertsonentzako Aparkalekuen Europako Txartela izan gabe.

11. Espaloi, nasa, lorategi, babesgune, pasealeku edo zoladurako arreta gune edo zerrenda guneetan osoz edo zatiz aparkatuta dagoenean, nola eta horretarako berariazko baimenik ez duen,

12. bide publikoaren gainerako erabiltzaileei trafikoko seinaleak behar bezala ikustea galarazten dienean,

13. besteak biratzera edo biratzeko maniobra arriskutsuak egitera behartzen dituzenean,

14. beste bide publiko batetik datozen beste gidariei bide publiko bateko trafikoko seinaleak behar bezala ikustea oztopatzen dienean,

15. eraikinera sartzera osoz edo zatiz galarazten duenean,

16. alkatearen bando bidez lehentasuneko bide izendatuta eta behar bezala seinaleztatuta dagoen bideko gune debekatu batean aparkatuta dagoenean,

17. erabat galtzadan aparkatuta dagoenean,

18. oinezkoentzako gune batean aparkatuta dagoenean, halako gunean egoteko baldintzak bete gabe, nola eta horretarako berariazko baimenik ez duen,

19. ondare publikoan galerak edo narriadura eragiten dituzenean, eta ulertuko da ibilgailu batek ondare publikoan galerak edo narriadura eragiten dituela galerak edo narriadura lorategietan, heskaietan, zuhaitzietan, parkeetan eta herria apaintzeko diren bideko beste gune batzuetan gertatzen direnean,

20. aurreko kasu guztietan bezala, zirkulazioarentzat edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduarentzat arriskutsua denean edo enbarazu handia denean, edo

21. udal agintariak ordutegi mugatuko aparkaleku gisa prestatuta dituzten lekuetan aparkatuta dagoenean, horretarako baimena ematen duen ezaugarririk ipini gabe duenean edo gehieneko denbora hiru aldiz gaindituta duenean.

35. artikulua

Udaltzaingoak, ibilgailuak bide publikotik kendu ahal izango ditu, baita ere, nahiz eta arau hausterik ez egon, kasu hauetan:

1. ekitaldi publiko baimendu baterako okupatua izan den gunean aparkatuta daudenean,

2. bide publikoa garbitu, konpondu edo seinaleztatu behar denean edo



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

3. larrialdiren bat dagoenean.

Artikulu honetako 1 eta 2. ataletan adierazitako zirkunstantziak ahalik eta denbora gehienaz aurretik ohartarazi beharko dira eta, ahal den neurrian, ibilgailuak gertuen dagoen leku baimendu batera eramango dira; gidariei, dena den, ibilgailuak non dauden adieraziko zaie. Ibilgailuen lekualdatzeek ez diete inolako gasturik eragingo haien jabeei, edozein dela ere ibilgailua eramana izan den lekua.

II. KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA

36. artikulua

1. Udaltzaingoak, trafikoa zaintzea bere zereginetako bat denez, ibilgailua ibilgetu dezake, ibilgailuak Ordenantza honetako arauak ustez hautsi baldin baditu eta, betiere,

a) ibilgailuak, zirkulatzeko baimen administratiborik ez badu, lortu ez duelako, baliogabetua izan delako, indarrean ez duelako edo zirkulatzeko ahalbidetzen dioen baimeneko baldintzak betetzen ez dituelako,

b) ibilgailuak akatsak izan eta horiek bide segurtasunerako bereziki arriskutsuak badira,

c) gidariek edo bidaiariek babes kaskoak edo hurrei eusteko sistemak jarrita ez baldin badaramatzate, derrigorrezkoa den kasuetan, txirrindulariak neurri honetatik salbuetsita geratzen direlarik,

d) 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 14. artikuluko 2 eta 3. atalek aipatzen dituzten probak egitera ukatzen badira edo probak positibo izan badira,

e) ibilgailuak nahitaezko aseguru ez badauka,

f) arauak ezarritakoa baino gidaldi luzeagoak direla edo atsedenaldiak ehuneko 50 baino gehiago laburtzen direla ikusten bada, nola eta gidariaz aldatzen ez den,

g) ibilgailuak gehiegi okupatzen badu eta, horregatik, plaza baimenduen kopurua, gidariarena kenduta, ehuneko 50 baino gehiago handitzea eskatzen badu,

h) ibilgailuak arauzko gas, ke eta zarata mailak gainditzen baditu, ibilgailu motaren arabera betiere,

i) kontrol tresnak manipulatuak izan direla pentsatzeko arrazoizko aztarnak baldin badaude,

j) ibilgailuak trafikoa zaintzen aritzen diren agintaritzaren agenteei iskin egiteko mekanismoak edo sistemak baditu, betiere haiek beren zereginetan ari direnean, eta baita irudi bidezko kontrol sistemak saihestekoak baditu ere,

k) C edo D motako baimenaz gidatzea eskatzen duen ibilgailua bada, horretarako dagokion baimen administratiborik eduki gabe, edo

l) 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 39.4 artikulua xedatutakoa betetzen bada.

2. Ibilgetzea kenduko da neurri hori hartzeko zeuden arrazoiak desagertutakoan.

3. 1. ataleko *h)*, *i)* eta *j)* paragrafoetako egoeretan, ibilgetzea soilik kenduko da ibilgailua tailer batera eraman eta tailerrak egiaztatzen badu sistema edo antzemandako manipulazioa desagertu egin dela edo arauzko mailak dagoeneko ez direla gainditzen.

4. 1. ataleko *e)* paragrafoetako egoeran, araudiak ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilaria eta aseguruari buruz xedatutakoa beteko da.

5. Ibilgailua agintaritzaren agenteek adierazitako tokian ibilgetuko da. Horretarako, agenteak ibilgailuaren gidariari adieraziko dio zirkulatzen jarraitzeko esandako tokiraino.

6. Ibilgetzearen ondorioz sortutako gastuak behar bezala justifikatu beharko dira eta arau haustea egin duen gidariaren kontura izango dira, nola eta ibilgailua titularrari lapurtua edo haren borondatearen kontra gidatua izan ez den; gidaria ezean, ohiko gidariaren edo alokairuan darabilkienaren kontura izango dira gastuak; eta horiek ezean, berriz, titularraren kontura. Gastuak ordaindu egin beharko dira, ibilgetze neurria kendu nahi baldin bada; dena den, errekurtsioa aurkezteko eskubidea erabili ahal izango da, eta baita Administrazioa halako neurria hartzera behartu duen pertsonari gastuak jasanarazteko eskubidea ere. Agenteek ibilgailuarekin zirkulatzeko baimena kendu dezakete harik eta aipatutako gastuen ordainagiria aurkezten den arte.

1. ataleko *h)*, *i)* eta *j)* paragrafoetako egoeretan, ikuskatze gastuak salatua izan denaren kontura izango dira, arau haustea egiaztatzen bada.

7. Arau haustea ibilgailu ibilgetua alokairuan baldin bazerabilkien, ibilgailua ibilgetzeko neurriaren ordean ibilgailua erabiltzea debekatuko zaio.

III. KAPITULUA. GASTUAK EGOZTEA

37. artikulua



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

1. Ibilgetzearen ondorioz sortutako gastuak behar bezala justifikatu beharko dira eta arau haustea egin duen gidariaren kontura izango dira, nola eta ibilgailua titularrari lapurtua edo haren borondatearen kontra gidatua izan ez den; gidaria ezean, ohiko gidariaren edo alokairuan darabilkienaren kontura izango dira gastuak; eta horiek ezean, berriz, titularraren kontura. Gastuak ordaindu egin beharko dira, ibilgetze neurria kendu nahi baldin bada; dena den, errekurtsioa aurkezteko eskubidea erabili ahal izango da, eta baita Administrazioa halako neurria hartzera behartu duen pertsonari gastuak jasanarazteko eskubidea ere. Agenteek ibilgailuarekin zirkulatzeko baimena kendu dezakete harik eta aipatutako gastuen ordainagiria aurkezten den arte.
2. Modu berean jardungo da, alkohola detektatzeko probak egiteari uko egiten zaion kasuan eta indarrean dagoen legeriak xedatzen dituen kasuetan.
3. Kendutako ibilgailua delituren bat egiteko erabilia izan bada eta delitua agintari judizialen esku jartzen bada, gastuak bide judizialek erreklamatuko dira.
4. Ibilgailuaren titularrek edo horretarako baimena duten pertsonak soilik kendu ahal izango dituzte ibilgailuak udal gordeleketik.

38. artikulua

Ordaintzeko betebeharra sortzen da ibilgailua bide publikotik kentzeko edo ibilgetzeko lanak hasten diren unetik, eta nahikoa izango da, horretarako, garabiaren edo horretarako ibilgailuaren presentzia hutsa kendu edo ibilgetu behar den ibilgailuaren ondoan, nahiz eta lanean hasi ez.

IV. KAPITULUA. IBILGAILUAK KENDU ETA IBILGETZEKO ZERBITZUAGATIKO TARIFAK

39. artikulua

Ibilgailuak bide publikotik kendu eta ibilgetzeagatik ordaindu beharreko tasak Asteasuko Ordenantzaren arabera sortuko dira, hain zuzen ere zergak, tasak, prezio publikoak eta/edo izaera publiko ez tributarioa duen ondare prestazioa arautzen dituen Ordenantzaren arabera.

V. KAPITULUA. IBILGAILU ABANDONATUAK BIDE PUBLIKOETAN

40. artikulua

Ibilgailu bat abandonatutzat ematen bada, Asteasuko Udalak agindu ahal izango du ibilgailua ibilgailuak tratatzeko zentro baimendu batera eramatea, suntsitua eta deskontaminatua izan dadin. Ibilgailua abandonatutzat hartuko da zirkunstantzia hauetakoren batean badago:

a) bi hilabete baino gehiago igaro direnean Administrazioak ibilgailua ibilgetu edo bide publikotik kendu eta gordelekura eraman zuenetik eta ibilgailuaren titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu;

b) leku berean hilabete bat baino gehiago daramanean aparkatuta eta lekualdatzea ezinezkoa denean, dituen kalteengatik ezinezkoa delako mugitzea edo matrikula plakak falta zaizkiolako; edo

c) ibilgailua matxura edo istripua izan, barruti pribatu batera eraman eta ibilgailuaren titularrak bi hilabeteko epean jaso ez duenean.

Ibilgailua eraman aurretik, Administrazioak titularrari ohartaraziko dio hilabete bateko epean ibilgailua jaso ezean ibilgailuen tratamendurako zentro baimendura eramana izango dela.

2. 1. ataleko c) paragrafoko kasuan, lekuaren edo barrutiaren jabeak edo arduradunak baimena eskatu beharko dio Lurraldeko Trafikoko Buruzagitzari hondakin tratamendurako. Horretarako, ibilgailuaren titularrari ibilgailua bere barrutitik kentzeko eskatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

3. Lurraldeko Trafikoko Buruzagitzak, autonomia erkidegoetako organo eskudunek, betiere trafiko eta zirkulazio arloetako zereginak eta zerbitzuak transferitu baldin bazaizkie, eta alkateak edo haren ordezkari gisa diharduen agintariak erabaki dezakete ibilgailuari hondakin tratamendua eman ordez ibilgailua trafikoko zaintza zerbitzuei adjudikatzea dagokion eremuan.

41. artikulua

Baldin eta ibilgailua abandonatutzat eman eta zirkulaziorako zerbitzu publikoren baterako arriskutsua edo oztopo handia ez bada, berehala kenduko da eta honela jardungo da:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

1. zirkunstantzia hori Ibilgailuen Erregistroan titular moduan agertzen denari edo benetako jabeari jakinaraziko zaio eta eskatuko zaio hamar eguneko epean ibilgailuaren kargu egiteko eta abandonatu egoera aldatzeko.

VI. KAPITULUA. IBILGAILU ABANDONATUAK UDAL GORDELEKUAN

42. artikulua

Ibilgailuak abandonatutzat emango dira eta ondorengo artikulua xedatzen duen bezala jardungo da, baldin eta Udalaren gordelekura eramanak izan badira trafikoko arau hausteengatik, trafikoko istripuengatik, prozedimendu judizial amaitu bateko gertakariengatik eta ibilgailua gordelekura eraman zenetik edo prozedura amaitu zenetik titularrek edo jabeek ibilgailua kendu ez badute.

VII. KAPITULUA. IBILGAILU ABANDONATUAK BESTERENTZEA

43. artikulua

1. Udalak enkante publiko bidez salduko ditu ibilgailuak gordetzeko lokaletan edo barrutietan dituen ibilgailuak, baldin eta ibilgailuaren titularrei ibilgailua kentzeko eta gordelekura eramateko zirkunstantzia berariaz eta formalki jakinarazi eta haiek, hilabetea igaro ostean, ibilgailuaren kargu egiteko hartu beharreko neurririk hartu ez badute.

2. Gordelekuko ibilgailuen titularrak aurkitzeko eginiko gestioek emaitzarik eman ez eta nor diren edo non dauden jakin gabe jarraituz gero, aurreko ataleko jakinarazpena Estatuko Boletin Ofizialeko Ediktu Taula Bakarrean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bidez egingo da, titularren kontura, ibilgailuen erreferentziak eta ezaugarriak ahalik eta zehaztasun handienaz azalduz, titularrak agertuko balira ere.

3. Ibilgailuak enkante publiko bidez saldu aurretik, Udalak Industria Ordezkaritzarekin eta/edo Trafikoko Lurralde Buruzagitzarekin tramitatuko ditu egoera horretan dauden ibilgailuek indarrean dagoen legeriaren arabera bete behar dituzten betebeharrak.

4. Aurreko xedapenak ez dira aplikatuko ibilgailuak prozedura judizial baten pean dauden trafikoko gertaerekin zerikusia dutenean eta tramitazioak jarraitzen duenean.

5. Ibilgailuak enkante bidez saldu eta lortzen den produktuarekin, gastuak ordainduko dira lehenik eta behin, ibilgailua kentzeak, gordeta edukitzeak eta enkanteak berak sortzen dituen gastuak alegia. Geratzen dena bi urtez gordeko da ibilgailuaren titularrarentzat. Behin epe hori igarota, Udalaren esku geratuko da.

44. artikulua

Udalak egokiena iruditzen zaiona egingo du ibilgailuekin, ibilgailuen titularrek haiek abandonatzeko borondatea argi eta garbi adierazi duten kasuetan.

45. artikulua

Ibilgailu abandonatuak besterentzeko prozedurak ez du aldatuko ibilgailuen titularrek abandonatzeagatik duten erantzukizuna edo titulartasun horretatik eratorritako beste edozein betebeharrak.

VII. TITULUA

ZIRKULAZIO NEURRI BEREZIAK

II. KAPITULUA. GARRAIO PUBLIKOKO GERALEKUA

46. artikulua

Udal Administrazioak zehaztu ahal izango ditu garraio publikoko zerbitzu bakoitzarentzako geralekuak eta geraldia.

III. KAPITULUA. ZAMALANAK

1. ATALA. Arau orokorrak



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

47. artikulua

Merkantzien zamalanak merkataritza eta industria lokalen barruan egin beharko dira, eta lokalek horretarako behar diren baldintza egokiak izan beharko dituzte.

48. artikulua

Merkataritza eta industria lokalek zamalanetarako baldintzak betetzen ez badituzte, zamalanak horretarako gordetako orduetan eta guneeetan egingo dira.

49. artikulua

Zamalanetako merkantziak eta gainerako materialak ez dira galtzadan edo espaloian utziko, eraikinetik ibilgailura eramango dira eta alderantziz.

50. artikulua

Ibilgailu baimenduak zamalanetarako gordetako guneeetan bakarrik aparkatu ahal izango dira.

51. artikulua

Merkantziak espaloitik gertuen dagoen ibilgailuaren aldetik kargatu eta deskargatuko dira, zamalanak arintzeko behar diren bitartekoak erabiliz eta oinezkoen nahiz ibilgailuen zirkulazioa ez zailtzen saiatuz.

52. artikulua

Herrigunean, zamalanak ez dira 08:00ak baino lehen hasiko eta ezingo da zamalanekin jarraitu 20:00etatik aurrera, 44. artikulua xedatutakoa ahaztu gabe, eta alferrikako zaratarik atera gabe egingo dira eta erabilitako gunea garbi utzi beharko da.

Herrigunerako ordutegia 28. artikulua xedatutakoa izango da eta ibilgailuak ez dira inoiz ibilgetuko edo aparkatuko 30 minutu baino gehiago.

Aparteko zirkunstantzia batengatik zamalanak ezarritako ordutegitik kanpo egin beharko balira, Udaltzaingoaren baimena beharko litzateke horretarako.

2. ATALA. Zamalanetarako gordetako guneak

53. artikulua

Udalak zamalanetarako arauzko eta ordutegi mugatuko guneak seinaleztatu ditu. Gune horiek antolatzeke, kontuan hartu merkataritzako zirkunstantziak, egoera, erabilera maiztasuna eta trafikoarekiko eta bideen gainerako erabiltzaileekiko eragina.

3. ATALA. Zamalanetarako guneak erabiltzeko arauak

54. artikulua

1. Zamalanetarako ibilgailua izango da:

- a) garraio txartela duen ibilgailua edo
- b) furgoneta txikia, garraio txartela eduki ez arren zamalanetan aritzen dena eta behar bezala identifikatua eta errotulatu dagoena.

2. Ez dira zamalanak izango merkantzien edo materialen banaketarekin zuzenean zerikusirik ez badute, hala nola erosketak, gestioak eta lanak egitea.

3. Lehen aipatutako ibilgailuek zamalanetarako guneak erabili ahal izango dituzte zamalanetan ari badira bakarrik eta ahalik eta denbora gutxien igaroko dute gune horietan, 20 minutu gehienez; martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan araututako Desgaitasuna duten Pertsonentzako Aparkatzeko Europako Txartelaren titular diren mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuen titularrentzat izan ezik, 45 minutukoa izango baita.

4. Zamalanetarako gordetako guneak astelehen amaieratik ostiralera bitartean bakarrik erabili ahal izango dira, seinaleztapenean arautzen den ordutegian.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Larunbatetan ere zamalanak egin ahal izango dira, azoka bereziak eta asteko merkatua izaten direnetan.

4. ATALA. Zamalanak zamalanetarako gordetako guneetatik kanpo

55. artikulua

Zamalanak zamalanetarako gordetako guneetatik kanpo soil-soilik egin ahal izango dira halako gunerik ez badago edo gunetik biltegira arteko distantziagatik zamalana lan neketsua edo arriskutsua egiten bada.

Zamalanak Ordenantza honek xedatutako aparkatze arauak betez egingo dira beti eta ez dira inoiz arriskutsuak edo kaltegarriak izango bide publikoaren gainerako erabiltzaileentzat.

IV. KAPITULUA. ABIADURAREN INGURUKO ARRETA

56. artikulua

Hauek dira gehieneko abiadurak herri barruko bideetarako, nola eta seinaleek bestelakorik esaten ez duten:

- 20 km/h galtzada eta espaloia plataforma bakarrean duten bideetan.
- 30 km/h zirkulazioaren noranzko bakoitzeko errei bat bakarra duten bideetan.
- 50 km/h zirkulazioaren noranzko bakoitzeko bi errei edo gehiago dituzten bideetan.

Ordenantza honetako 23. artikulua oinezkoentzat definitutako eremuan, ibilgailuentzako gehieneko abiadura izango da 20 km/h.

Ezarritako abiadura orokorrak jaitsi ahal izango dira, Udal Agintaritzak ipinitako berariazko seinalearen bidez.

Salbuespen moduan, Udal Agintaritzak abiadura handitu ahal izango du noranzko bakoitzeko errei bakarra duten bideetan, gehienez ere 50 km/h-ra arte, aurretik berariazko seinaleztapena jarrita.

Zirkulazioaren noranzko bakoitzeko bi errei edo gehiago dituzten herri barruko bideetan eta zeharbideetan, merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek 40 km/h-ko abiaduran zirkulatuko dute gehienez.

Udal agintariak eta bidearen titularrek behar diren neurriak hartuko dituzte trafikoa arintzeko eta ezarritako abiadura mugak antzematea ahalbidetzeko.

57. artikulua

Oinezkoen guneetan, baimenduta baldin badago, eta espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezko ugari dagoen beste leku batzuetan, ibilgailuek oinezkoen ohiko abiaduraraino murriztuko dute beren abiadura, eta, behar izanez gero, geratu ere egingo dira; behar diren neurriak hartuko dituzte, istripurik ez izateko.

58. artikulua

Arretaz jokatu da, era berean, istripuak saihesteko edo oinezkoei ez molestatzeko, baldin eta zoladura egoera txarrean badago, galtzada estutu egiten bada, obrak badaude, eguraldi baldintza txarrak badaude...

VIII. TTULUA

ZIRKULAZIOA MUGATZEA

59. artikulua

Ibilgailuek ezingo dute zaratarik atera behar ez bezala erabilitako seinale akustikoen bidez, ezingo dituzte azelerazio zakarrak egin, ezingo dituzte ihes hodiak aldatuta edo hondatuta erabili edo antzeko beste zirkunstantziaren batean egon.

60. artikulua



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Txirrinduen eta motor bizikleten gidariak indarrean dauden zirkulazio eta seinalizazio arauak ezagutu beharko dituzte, eta zorrotz bete beharko dituzte arau horiek eta agintaritzaren agenteen oharrak.

61. artikulua

Txirrinduek, patinek, gurpil oholek eta trizikloek haientzat gordetako erreietatik zirkulatu beharko dute; bestela, oinezkoen guneeetatik ere zirkulatu ahal izango dute, betiere oinezkoen kopurua ikusita hori posible bada. Oinezkoen guneeetan, oinezkoen lehenetsua errespetatuz zirkulatuko dute, oinezkoentzat arriskurik sortu gabe eta oinezkoen ohiko abiadurara egokituz.

62. artikulua

Debekatua dago galtzadan patinez, gurpil oholez edo antzeko gailuez zirkulatzea.

63. artikulua

Txirrindulariak ahalik eta gehien eskuinaldeari arrimatuta joango dira galtzadan zirkulatzen doazenean.

64. artikulua

Txirrindulariak edo motozaleak ilaran joango dira, taldean doazenean; segurtasun neurriak zainduko dituzte elkarren artean eta ez dira abiadura edo abilezia norgehiagokan ariko Nolanahi ere, debekatua dago paraleloan zirkulatzea.

IX. TITULUA

**ARAU HAUSTEAK TIPIFIKATZEA ETA MAILAKATZEA, HAIEI APLIKA
DAKIZKIEKEEN ZEHAPENAK ETA ZEHAPEN PROZEDURA**

I. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK, MAILAKATZEA ETA ZEHAPEN APLIKAGARRIAK

1. ATALA. Arau orokorrak

65. artikulua

1. Ordenantza honen aurkako ekintzak eta ez-egiteak arau hauste administratiboak izango dira eta Udalak erabakitzen duen kasuetan, forman eta neurrian zehatuko dira, betiere zigor legeetan tipifikatutako delitu edo falta ez badaitezke izan. Hala bada, Administrazioak dagokion jurisdikzio ordenari pasako dio erruduntasun testigantza eta zehapen prozedurarekin jarraitzeari utziko dio, harik eta agintari judizialak epai irmoa ematen duen arte.

Herri barruko bideetan egiten diren gainerako arau hausteak ere zehatu egingo dira, legeriaren arabera, hain zuzen ere trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko urriaren 30eko Testu Bategina onartu zuen 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra onartu zuen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren eta indarrean dauden trafikoko beste arau batzuen arabera, nola eta legeak zehapen ahalmena beste administrazioen baten esku uzten ez duen; hala bada, jarduketak administrazioz aldatuko dira.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren arau hausteak hirutan sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.

2. ATALA. Arau hausteak eta zehapenak

66. artikulua

1. Arau hauste arinak 100 euroko isunaz zehatuko dira, larriak 200 euroko isunaz eta oso larriak, berriz, 500 euroko isunaz.

2. Ordenantza honen arabera zehatuko diren arau hausteak urriaren 30eko 6/2015 Legeko 75, 76 eta 77. artikuluek xedatutakoak dira. Legearen bidez, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Testu Bategina onartu zen.

3. Gehiegizko abiaduragatik eginiko arau hausteak indarrean dagoen legeriak xedatutako isunez zehatuko dira.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

4. Baldin eta arau haustea edari alkoholdunen, substantzia estupefazianteen edo antzekoen substantzien eraginpean gidatzeagatik eginikoa bada eta halako substantziak edo alkohola antzemateko probak egiteari uko egiten bazaio, arau hausteen taularen eranskinean ageri diren isunak ezarriko dira.

5. Zehazpenak handiagoak edo txikiagoak izango dira kontuan izanik gertatutakoa zenbateraino den larria eta garrantzitsua, arau haustearen aurrekariak eta arau haustek eragin lezakeen arriskua. Zehapenen eranskinean agertzen diren isunak % 30 handitu daitezke, kontuan hartuta:

- a) gertatutakoa zenbateraino den larria eta garrantzitsua,
- b) arau haustearen aurrekariak,
- c) berrerortzea eta
- d) arau haustek arau haustearentzat ez ezik bidearen gainerako erabiltzaileentzat ere eragin lezakeen arriskua eta proportzionaltasun kriterioa.

6. Arau haustek bere ohiko bizilekua lurralde espainiarrean duela egiaztatzen ez badu, agente salatzaileak behin-behineko isuna ezarriko dio eta, isuna ordaindu ezean edo haren ordainketa Zuzenbidean onartzen diren moduren baten bidez bermatu ezean, ibilgailua ibilgetu egingo du.

7. Ibilgailuaren titularrak edo errentariak arau haustea egin duena identifikatzeko betebeharra dauka eta, betebehar hori dagokion prozedura tramitean justifikaziorik gabe bete ezean, hasierako arau hausteari dagokion isunaren bikoitza ezarriko zaio, arau hauste arina izan bada, eta hirukoitza, larria edo oso larria izan bada.

3. ATALA. Erantzukizuna

67. artikulua

1. Ordenantza honek eta trafikoko arauak xedatua hausteagatiko erantzukizuna arau haustetzat hartzen den gertaeraren egileari dagokio zuzenean.

2. Ibilgailuaren titularrak edo errentariak arau haustea egin duena identifikatzeko betebeharra dauka eta, betebehar hori prozedurako dagokion tramitean justifikaziorik gabe bete ezean, diruzko zehapena ezarriko zaio. Arau haustea arina izan bada, hasierako arau hausteari dagokion isunaren bikoitza ezarriko zaio eta, larria edo oso larria izan bada, hirukoitza.

3. Organismo eta zerbitzu publikoko gidariek Ordenantza honetan xedatutakoa uneoro zorrotz betetzen dela zainduko dute, eta egiten dituzten arau hausteen erantzule izango dira.

Organismo edo zerbitzu publikoko ibilgailu bat salatua izaten bada, ibilgailuari dagokion departamentu buruari emango zaio gorabehera horren berri, tramitatu daitekeen zehapen espedientea ahaztu gabe.

II. KAPITULUA. ZEHAPEN PROZEDURA

68. artikulua

Trafikoaren, ibilgailu motordunen, zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloetako zehazpen prozedura indarrean dagoen legeriak ezarritakoa izango da:

Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Testu Bategina onartu zuena, eta martxoaren 14ko 318/2003 Errege Dekretua, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloetako zehazpen prozedurari buruzko Erregelamendua aldatu zuena. Erregelamendu hura otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretu bidez onartu zen, abenduaren 19ko 19/2001 Legera egokitzeko, hain zuzen ere trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua erreformatzeko Legera. Testu artikulatuko Legea martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen.

69. artikulua

1. Ordenantza honetako arauak hausteagatik hasitako espedienteak bideratu eta ebazteko eskumena Eusko Jurlaritzako Trafikoko Sailarena izango da, Oso Bilkurak 2018ko azaroaren 28an hartutako akordioaren arabera. Akordio hura funtzioak transferitzeko hartu zen eta Eusko Jurlaritzako Segurtasun Sailburuordetzako Trafikoko zuzendariak 2021eko uztailaren 27an emandako Ebazpenaren bidez luzatu egin zen; zuzendariak erabaki zuen zehatzeko ahalmenarekin jarraitzea, udalerrian izan daitezkeen arau haustek bideratzeko eta zehatzeko, Eusko Jurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren isunen koadroaren arabera, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta gainerako arau aplikagarriek xedatzen duten bezala.

2. Zehatzeko eskumenak eskuordetzan emanda diraun bitartean, ez zaizkie aplikatuko hobariak jarritako zehapenei.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

3. Artikulu honetako lehen puntuko funtzioen transferentzia amaituta, Ordenantza honetako arauak hausteagatik hasitako espedienteak bideratu eta ebazteko eskumena Asteasuko Udaleko alkatearena izango da. Alkateak eskumena eskuordetu dezake aplikatu beharreko araudiaren arabera.

4. Udaltzainak agintaritzaren agenteak dira eta, beraz, haien betebeharra izango da Ordenantza honen eta trafikoaren arloan indarrean egon eta aplikatu daitezkeen legeen arau hausteak salatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena: Asteasuko Udalak dituen baliabideen arabera inplementatu eta emango dira ibi lizentziak, eta baita Udal Ordenantza honetako V. Tituluan aurreikusitako zerbitzua ere, hau da, ibilgailuak bide publikoetatik kendu eta gordetzeko zerbitzua, eta Alkatetzak ahalmena izango du behar diren erabakiak hartzeko aipatutako zerbitzuak martxan jartzeko.

Bigarrena: Ordenantza honetako V. Kapituluaren ezarritako gunez gain, oinezkoen gune izango dira Zelaieta eta Lizarra etxeen arteko gunea eta Santa Kruz ondoan dagoen bidea, Ordenantza honi erantsita doan 3. Planoan agertzen den moduan.

Oinezkoen gune izendatzeak esan nahi du oinezkoek izango dutela lehentasuna definitutako eremu osoan eta debekatua egongo dela aparkatzea eta ibilgetzea, Ordenantza honetako 22-32 artikuluetan arautzen diren berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

Ondorio horietarako, Udalak behar bezala seinalizatuko ditu oinezkoen guneak, zamalanetarako guneak, horientzat egon litezkeen ordutegiak eta zirkulatzeko dauden debekuak, zirkulazioko Erregelamendu Orokorrak xedatutakoa kontuan hartuz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko dira arau hauek:

- Asteasuko herriguneko zirkulazioa arautzen duen Ordenantza (GAO, 127. zk., 2077/06/28koa).

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau oso-osorik argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta indarrean sartuko da toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 39/2015 Legeko 65.2 artikulua xedatzen duen epea igaro ondoren eta indarrean egongo da harik eta berriaz aldatzen edo indargabetzen den arte. Aldatzea nahiz indargabetzea Udalaren Osoko Bilkurak onartu behar du.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)



1. PLANOA. LEHENTASUNEZKO BIDEAK (IV. kapitulua. 21. artikulua)
Hiriko bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen udal ordenantza.

PLANO 1. VIAS PREFERENTES (Capítulo IV. Artículo 21)

Ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano



Pto 1-5: KALE BERRIA

Pto 5-6: KALE NAGUSIA

